



ESKAUT METODOA

SARRERA

1. Eskautismoa joko da

Eskautismoa joko dela zioen Baden Powellek, beste funtsezko helburu batzuei erantzuten dien, oinarritzko osagai batzuetatik eratzen den eta, aldi berean, jokoak diren jarduera batzuen bitartez gauzatzen den hezkuntza tresna.

Jokoaren ondorioetako bat ikasteak eta helburua lortzeak dakarren poza da eta hori funtsezko ezaugarri batzuei esker gertatzen da: ekintza, irudimena, abentura, dibertimendua, taldeetan elkartzea, egitekoak banatzea, hitzartutako arauak errespetatzea.

Joko horretan, mutiko, neskato eta gazteez gain, arduradunek ere parte hartzen dute. Mundu guztiak du ezinbesteko egitekoa, garatu beharreko nahitaezko zeregina eta honen helburu eta arauak ezagunak izan behar dute.

2. Eskautismoa metodoa da

Eskaut metodoa elkar osatzen eta uztartzen duten elementu desberdinez osatutako hezkuntza sistema da; horietako bakoitzak hezkuntza betebeharrak jakin bati erantzuten dio baina ezinbestekoak ditu besteak. Zuzen erabiltzeko, kontuan hartu behar dugu neska-mutiko eta gazte bakoitzaren eta unitatearen garapen maila eta baita beren berriazko ezaugarri eta inguruabarrak ere.

Metodoak funtsezko ideia du abiapuntutzat: lagun bakoitza bere garapenaz arduratzeko gauza dela uste du. Bera da hezkuntza prozesuko protagonista; Metodoa euskarri eta gida den koadro egituratua baizik ez da; abiapuntuko ideia honi '*autohezkuntza*' deituko diogu.

Hauxe da aurrerapen pertsonalerako giltza Eskautismoarentzat: mutiko, neskato edo gazte bakoitzak, bere interes guzietatik, bere gaitasun eta trebetasunak garatzen dituela jakingura berriak aurkitzeko eta, bere erritmoaren arabera, gaitasun eta trebetasun berriak garatzeko.

Metodoak, zuzen erabili ezker, helburuetako gehienak lortzea ziurtatzen du. Era aberasgarri eta malguan, errealitate bakoitzera egokituz, etengabe aztertuz, eta helburuetatik aldentzea saihestuz, metodo hori ezartzea da arduradunen egitekoa.

3. Eskaut metodoa egitarau eta egitasmoetan uztartzen da

Historian zehar, eskaut jokoaren dinamizazioa egituratzeko bi era egon dira: programen sistema eta egitasmoen sistema. Batak zein besteak, abantailak eta desabantailak ditu.



Batez ere aurrerapen pertsonalean oinarritzen den programen sistemak, helburuak epe luzera garatzea proposatzen du, aldez aurretik nahiko erabakita eta zehaztuta dagoen jardunbidetik. Hezten duen pertsonaren zein heziketa jasotzen duen pertsonaren aukera sortzaileak gutxitzen ditu baina, aldi berean, hobeto bideratzen du helburuen lorpena.

Funtsean elkarte aurrerapenera zuzenduta dagoen egitasmoen sistemak *hausnarketa-ekintza-hausnarketa* sekuentziaren bidez artikulaturiko jarduera konplexuen bitartez lan egitea proposatzen du. Jarduera horiek hezten diharduenak proposatzen ditu eta beren iraupena zehaztu samar dago. Hezitzaileak, bere aldetik, hezkuntza helburuen presentzia ziurtatu beharko du, batzuetan nahiko lausotuta egoten dira-ta

Europako Eskautismo Katolikoaren gehiengoaren haritik, 'Eskaut EMK' deritzanak sistema mistoaren alde egiten du Gazteen Egitarauan. Bertan, lagun bakoitzari egokitutako aurrerapen indibidualerako ibilbideak eta sormenerako guztiz egokiak diren eta aurrerapen pertsonalaren garapena sendotzen laguntzen duten egitasmo komunitarioak uztartzen dira.

METODOAREN OSAGAIK

1. Legea eta Agintzaria

Legeak eta Agintzariak ezagutu egin behar den ikuspuntu bikoitza dute:

- a) Legea eta Agintzaria dira testu ideologiko eskaut nagusiak:

Eskaut Legeak, eskautismoak gauzatzen duen bizimodu jakin bat, proposamen zehatz eta pedagogikoa proposatzen dituzten balio unibertsal batzuk berresten ditu. Hauek onartzea ala ez, aukera aske eta pertsonala da. Konpromiso publiko eta solemne hau da eskaut Agintzaria

Legearen eta Agintzariaren edukia bera da mundu osoan eta eskaut bakoitzak bakarka onartzen du; honela, Legea eta Agintzaria dira Eskaut Mugimenduaren batasun ideologikoaren giltza

- b) Legea eta Agintzaria dira eskaut metodoaren osagai nagusia

Eskautismoan gaudenon ustez, hezkuntzaren oinarri eta helburuek ez dagozkie pertsona helduei bakarrik; neska-mutiko eta gazteak beren garapenaren arduradun bihurtzeko eskaut jokoaren barruan, zuzenean aurkeztu behar dizkiegu Mugimenduaren hezkuntza helburuak beren adinaren arabera ulertzeko moduko hizkeran (hauxe da Eskaut Legearen eginkizun metodologikoa); eta neskato-mutiko eta gazte bakoitzak erabakiko du helburu horiek jadedesteko ahaileginduko den ala ez (hauxe da Eskaut Agintzariaren eginkizun metodologikoa).

Legea eta Agintzaria dira, beren oinarri ideologikoa eratzearen, jokoaren osagai nagusia eta horren gainean artikulatzen dira gainerako osagai guztiak; horregatik, eskaut jarduera osoan azalduko dira, une sinboliko hutsetara mugatu gabe.



Agintzaria egitea funtsezko esperientzia da edozein eskauten ibilbide pertsonalean eta, horregatik, ezinbestekoa da heldutasuna izatea eta sakontasunez egitea, bere edukia erantzukizunez nork bere egiteko.

Testuak adin bakoitzari moldatu behar zaizkio, mailaka-mailaka behin betiko onartzeraino heltzeko. Adar bakoitzaren metodologiak zehazten du zein izango den Legearen eta Agintzariaren sakontasuna eta formulazioa etapa bakoitzean.

Hona hemen Eskaut Legearen testua 'Eskaut EMC' Mugimenduan:

1. *Eskautak konfiantza merezi du.*
2. *Eskauta leiala da.*
3. *Eskauta arduratsua eta arretatsua da.*
4. *Eskauta denen adiskidea eta eskaut guztien anai-arreba da.*
5. *Eskautak biziki errespetatzen ditu pertsonak.*
6. *Eskautak Jainkoaren egintza ikusten du izadian eta babestu egiten du..*
7. *Eskautak ez ditu gauzak erdizka egiten.*
8. *Eskautak alaitasunez gairitzen ditu zailtasunak.*
9. *Eskauta zorrotza, langilea eta ondasunekin arduratsua da.*
10. *Eskauta osasuntsua da.*

Hona hemen Eskaut Agintzariaren testua 'Eskaut EMC' Mugimenduan:

Neure ospeagatik eta Jainkoaren laguntzaz, ondorengoak gauzatzea agintzen dut:

- *Jainkoarekin eta nire Herriarekin ditudan betekizunak bete,*
- *besteei lagundu egoera guztietan eta*
- *Eskaut Legea bete.*

Elementu honen adierazpentzat jo ditzakegu, gainera, pertsona batek Mugimendura sartzen denean bere gain hartzen duen hasierako konpromisoa, Batasun Gutunen sinadura edo Adar bakoitzaren metodologiak jasotzen dituen antzerako beste konpromiso batzuk.

2. Hezkuntza ekintzaren bitartez

Baden Powellek aholku hau ematen zien eskaut arduradunei: *“erra dadila; errakuntzen bitartez eratzen da esperientzia”.*

Eskautismoan esperientziaren bitartez ikasten da eta ez irakaskuntza teorikoaren bitartez: neska-mutiko eta gazteen oso-osoko jardueren balioa aitortzen dugu eta jarduera espontaneo horiek ekintza eta abenturaren sinonimo bihurtzen den eskaut esperientziaren motortzat berresten ditugu.

Hezkuntza helburuak lortzeko, neurri handi batean egitasmoen inguruan uztartzen diren eta beraien interes guneetatik garatzen diren esperientzia esanguratsu batzuk aurkezten dizkio Eskautismoak neska-mutiko edo gazteari.



Neska-mutiko edo gaztea ekintzaile da prozesuan, ekintzen proposamenean, azterketan eta ospakizunean. Honela, jarduerak eraginkortasunez erantzuten diete interesguneei.

Neska-mutiko edo gazteak hobeto ulertuko du esaten dioguna berak baduen esperientziaren batekin lotu badezake; esperientziak hausnakerta-ekintza-hausnarketa sekuentziari esker bihurtzen dira neurri handi batean esanguratsu. Mekanismo honek prozesutik –aurkezten denetik gauzatzen den arte- eratorritako erantzunak lortzea eta barneratzea ahalbideratzen du. Horrexegatik, Eskautismoa, jatorritik, pedagogia ekintzaile bezala definitu izan da eta bertan bizi dena ikasten da.

3. Bizitza talde txikietan

Talde txikia

Talde txikia gizakiaren osoko garapenerako erabakigarria den esperientzien iturri da.

Zehatz-mehatz, eskaut jokoa talde txikian garatzen da batez ere, berdinen taldea osatzen duten pertsonen partaidetza, protagonismoa, erantzukizunak hartzea eta ardurakidetasuna bermatzen duelako. Honela, kideen elkarrekintza positiboa eragiten da, guztien interes eta beharrei erantzunez eta lagun bakoitzak taldearen funtzionamendu onerako ekarpena egitea ahalbideratuz.

- *Batasuna eta eskaut taldea*

Talde txikiak elkarren artean lotuta daude, elkar osatzen dute eta kideak egiten dute; esparru zabalagoak sortzen dituzte, gainera, eta hauetan ere gara daiteke eskaut jarduera, batez ere batasuna, arlo honetan garatzen delarik egitarauaren zati handia; adar guztietako unitateak uztartzen dituen eskaut taldeak sekuentzia pedagogikoaren jarraitasuna ahalbideratzen du eta Mugimenduaren lekuko oinarritzko egitura eratzen du.

- *Elkarte eta nazioarteko esparruak*

Neurri txikiagoan bada ere, eskaut jardueraren beste zati bat elkarte eta nazioarteko esparruetan garatzen da eta hauek ere bategitea, bizikidetasuna eta gainerako eskautekiko lankidetzaren eragiten dute eta Mugimenduaren alderdi unibertsala adierazten.

- *Joko instituzionala*

Joko instituzionalaren bitartez elkarte bizitza eta beraien artean duten harremana artikulatzen da eskaut jarduera gauzatzen den esparru guztietan. Joko honi esker, bizitza sozial eta demokratikoan sarbidea egiteko aukera ematen duen gizarte txikia eratzen da. Elkarrekikotasunean dauden elementu batzuek osatuta dago:

- o Elkarte naturala adiskideen taldeetan.



- Neska-mutiko eta gazteen arteko lankidetzaz heldutasun eta esperientzia maila desberdinekin.
- Erantzukizun zehatzen ardura hartzeko aukera.
- Partaidetza, erabakiak hartzea eta ebaluazioa eragiteko esparru demokratikoak egotea Mugimenduaren maila guztietan.
- Ordezkatzearen eta ordezkatu izatearen esperientzia.
- Eskubide eta erantzukizun berdintasuna sexu bereko pertsonen artean.

4. Akonpainamendu heldua

Arduradun bakoitzak mutiko, neskato eta gazte bakoitzari banan-banan laguntzen dio eskautismora jokatzera. Eskautak bizi dituen esperientzietatik bere ondorioak ateraz aurrera egin dezan, Mugimenduan dauden hezkuntza helburuak ziurtatzea da, batez ere bere eginkizuna.

Horretarako, erantzukizunen inguruan biderapenak ematen dizkie neska mutiko eta gazteei eta babesa eta konfiantza ematen dizkiete erantzukizunak har ditzaten, interesatzen zaizkien jarduerak garatzeko behar dituzten baldintza egokiak eta baliabideak eskuratzea ziurtatuz.

Unitatearen jardura batera kudeatzen dute mutiko, neskato eta gazteek eta laguntzaile dituzten pertsona helduek: denek parte hartzen dute erabaketan, bakoitzak bere eginkizunetik.

Elkar errespetatzeaz eta lokarri emozional positiboak ezartzeaz gainera, arduradun bakoitzaren neska-mutiko eta gazteekiko jardura pedagogikoa bere eredu pertsonalean oinarritzen da eta horixe da, hain zuzen ere, bere funtsezko hezkuntza tresna.

Hori dela-eta, ezinbestekoa da arduradun bakoitzak Mugimenduak proposatzen dituen balioekin bat egitea eta balio horiekin konprometitzea, bere borondatezko hezkuntza lana Eskaut Egitarauaren logikatik gauza dezan heziketaren jasotzaile diren neska-mutiko eta gazteekin zein gainerako arduradunekin, Helduen Egitarauan jasotakoaren arabera.

5. Aurrerapen pertsonala

Eskautismoan, neska-mutiko eta gazte bakoitzak Adar bakoitzaren berriazko helburuen barruan proposatu izan diren helburu pertsonalak jadesteko egiten duen ibilbidea da aurrerapen pertsonala eta Mugimenduan sartzeak ematen dio hasiera prozesu horri.

Eskaut metodoan, aurrerapenak definitzen duten ezaugarri batzuk ditu:

- Pertsona bakoitzari dagokio eta dinamiko eta jarraikorra da: aurrerapen pausuak partikularrak eta desberdinak dira lagun bakoitzarentzat eta, horrela, batentzat erabat arrunta izan daitekeena, lorpen itzela izan daiteke beste batentzat eta hori baloratu eta aitortu egin behar dute kideek zein arduradunek.



- Autorregulatua da, arduradunek aurrerapena sustatu behar badute ere, neska-mutiko edo gazte bakoitzak erabakiko duelako noraino heldu nahi duen.
- Talde txikia eta unitatea kide bakoitzaren aurrerapenetik bizi da; elkarte aurrerapenaren atal bezala integratzen eta baloratzen dute eta, horregatik, ez da lehiakorra.
- Eskaut bakoitzak eta berdinen taldeak baloratzen du; beraz, ez dagokie arduradunei bakarrik aitorten hori egitea.
- Sinbolikoki eta publikoki aitortzen da, neska-mutiko edo gazteak helburu jakin bat lortzeko erakutsi duen asmoa eta konpromisoa –eta ez haren lorpena- baloratu; aurrerapena aitortzearen helburua ez da saritzea, konpromisoa sinbolizatzea eta, ondorioz, sendotzea, baizik.
- Lagun bakoitzak eskaut esparruan duen eboluzioa kontuan hartzen du baina ez hori bakarrik, bere eguneroko bizitzan gertatzen dena ere aintzat hartzen duelako. Horregatik, ezinbestekoa da gainerako hezkuntza ekintzaileekin harremanean jartzea, helburuekin bat datozen emaitza globalak lortu ahal izateko.

Honela, aurrerapen pertsonalerako eskaut sistemak zera lortu nahi du: lagun bakoitzak, bere adin eta ezaugarrien arabera, hezkuntza helburuak (zer itxaroten duen Eskautismoak berarengandik) uler ditzala, aurrerapenerako bere egitasmo pertsonala egin dezala eta, emaitzak ez ezkik, bere ahaleginak aitortzen dizkiotela ikus dezala.

Beste alde batetik, elkarte aurrerapena bilatzeak talde txiki edo unitateko kide bakoitzaren aurrerapen pertsonala eragiten du; era berean, eskaut bakoitzaren aurrerapen pertsonala lortzeak elkarte aurrerapena dakar.

Adar bakoitzean, aurrerapen pertsonalerako hiru etapatako ibilbidea proposatzen da:

- a) Integrazioa: pertsona talde txikian eta unitatean sartzen da eta bere kideak, Eskautismoak adar honetan proposatzen diona, joko-arauak ezagutzen ditu. Agintzarian adierazten den konpromisoaren ospakizunarekin bukatzen da aldi hau.
- b) Konpromisoa: aldi honetan, Agintzaritik sortzen den zerbitzua garatzen da. Eskautismoaren hezkuntza helburuak aintzat hartuta aurrera egitea da kontua.
- c) Zerbitzua: neska-mutiko edo gazteak bere eginda du neurri handi batean adar honetako proposamena eta buruzagitza positiboa gauzatzen du, laguntza bihurtuz Kraalerako eta unitateko ekintzailearentzat.

6. Izadian bizi

Izadia da aparteko esparrua eskaut jardueren adar guztietako ekintzak gauzatzeko eta Mugimendua osatzen dugun pertsona guztion bizitzarako.



Esparru bikaina da zentzumenen, abilezia pertsonalen eta sentsibilitatearen garapenerako. Bertan errazagoa da funtsezkoaz jabetzea eta baloratzea.

Sozializaziorako, hurbilketa pertsonalerako eta elkartasunerako bidea ere bada. Konfiantzan sakontzea eta erantzukizun indibiduala eta taldearekiko erantzukizuna jadestea ere ahalbideratzen du.

Girorik egokiena da gizakiak unibertsoan duen lekua antzemateko eta onartzeko, Transzendentziarako zabalkundea erraztuz.

7. Esparru sinbolikoa

Esparru sinbolikoa, Mugimenduaren berariazko lengoaia da, kide guztiei adin bakoitzari egokitutako berariazko komunikazioa garatzeko aukera ematen diena. Lengoaia honek taldeak batu egiten dituen eta, Gazteen Egitarauan eta Helduen Egitarauaren garapenean koherentziaz jokatzu, kidetasun sena sendotzen duen identifikazio sistema dakar.

Eskautismoaren hezkuntza proposamena irudikatzen duen sinboloek osatzen dute: lepokoa, lili-lorea, Adarren koloreak, abestiak, tradizioak, zeremoniak... Esanahia duten, eszenatokia, Mugimenduaren balioak eta proposamena jasotzen dituen giroa sortzen laguntzen dute eta ulerterrazago bihurtzen ditu mutiko, neskato eta gazteentzat.

Lengoaia Adarretako bakoitzera egokitzen da esparru egonkorretan: “balizko” batzuk sortzen dira, jokia horien inguruan garatzeko eta hortik “erronkara” igarotzen da adin ertainetan (abentura) eta “errealitatean” bertan bukatzen dute biziera heldura igarotzea markatzen duten etapetan. Honela, eskautismoaren balioak jokoaren bidez benetako bizitzara eramaten dira.

Documento aprobado en la 53ª Asamblea General Ordinaria del Movimiento Scout Católico

Santiago de Compostela, 30 y 31 de Octubre de 2011

Texto Ley y Promesa Aprobado en la 54ª Asamblea General Ordinaria

Pozuelo de Alarcón, 7 y 8 de Mayo de 2011